

# CCOO ETA UGT-K EUSKAL OSTALARITZAKO LANGILEEN SOLDATA %50 ARTE JAITSI-ARAZI NAHI DUTE

**Bi sindikatuek Euskal Autonomi Erkidegoko Ostalaritzako I. Akordio Markoa inpugnatu dute. Inpugnazioa irailaren 18an sinatu zuten, 2 egun lehenago Euskadiko CCOOk, prentsan adierazi zuen “akordio hori ez da inpugnatuko” eta inpugnazioari buruzko salaketa “gezurra da”.**

ELA eta LABek aspaldi iragarria genuen, estatalizazioaren politikari jarraiki, CCOO eta UGT sindikatuek Ostalaritzako I. Akordio Markoa inpugnatzeko asmoa zutela. Akordio horren ondorioz, Ostalaritzako Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako langileei lehentasunez hemengo hitzarmen kolektiboak aplikatzea lortu genuen eta langileen lan-baldintzak babestu genituen Madriletik etor zitezkeen murrizketen aurrean.

Inpugnazio honek aurrera egitekotan ondorio lazgarriak izango lituzke ostalaritzako Euskal Autonomi Erkidegoko langileengan beraien lan baldintzak gehiago prekarizatuz. Adibidez, langile batzuen kasuan soldata %50 murrizteko arriskua dago, urtean 8.200 euro gutxiago, eta urtean 50 ordu gehiago lan egin beharra.

Akordio horren sinatzaile garen ELA eta LABek ordezkartzaren %77,48a dugu. CCOO eta UGT sindikatuek euskal langileek eman ez dieten ordezkartza lapurtu eta beste eremu bateko lan-baldintzak inposatu nahi dituzte.

Espainiako bi sindikatuen asmoa argia da, ordezkartza sindikala monopolizatu nahi dute, bost axola die langile hauen lan-baldintzak. Era berean, sindikatu hauen apustua identitarioa da, estatu osoko langileen lan-baldintzak homogeneizatu nahi dituzte, okerrera homogeneizatu arren, marko estatala defendatzen dutelako. Lan-baldintzen okertzea enpresarien eskutik etorri beharrean sindikatu horien eskutik etortzea eskandaluzkoa da.

Eusko Jaurlaritzaren aliantza sindikala hauekin bilatzen du, CCOO eta UGTren asmo bera duelako, euskal langileek ematen ez duten ordezkartza sindikala beste batengatik aldatzea. Aliantza honek markatzen du gobernuaren autogobernuari buruzko aldarrikapena, bake soziala oparitzen dieten sindikatuei ematen nahi diete ordezkartza, euskal langileen erabaki esparrua ukatzen dutenak izan arren.

Ez dago autogobernurik negoziazio kolektiboan euskal langileek negoziatzeko eskubiderik ez badute. CCOO eta UGTren salaketa honek erakusten du Madriletik edozein eremutan euskal herritarren erabakitze eskubidearen aurka arituko direla eta, ondorioz, Eusko Jaurlaritzak, Lehendakaria buru, langileon defentsan aritu nahi badu, eraso honen aurka irmoki erantzun beharko luke.

Akordioaren sinatzaileak diren Confebask eta Ostalaritza Elkarteak ere interpelatu nahi ditugu, Akordioaren defentsa eta publikoki akordioa inpugnatzeko erabakia salatu dezaten.

ELA eta LABek epaitegietan Akordio Markoaren balioa defendatuko dugu, baina, horrez gain, euskal langileei mobilizazioaren bitartez bere lan-baldintzak defendatzeko deia egiten diegu. Ezin diegu gure lan-baldintzak lapurtzen utzi.

**DEMOKRAZIA SINDIKALAREN ALDE!  
OSTALARITZAKO LANGILEEN ALDE!**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

**LAB**

Euskal Herrian, 2017ko urriaren 4an.

# CCOO Y UGT QUIEREN BAJAR HASTA UN 50% LOS SALARIOS DE HOSTELERÍA

**Los dos sindicatos han impugnado el I Acuerdo Marco de Hostelería de la Comunidad Autónoma Vasca. Dos días antes de la impugnación, firmada el 18 de setiembre, CCOO de Euskadi declaró públicamente que “ese acuerdo no se impugnará” y que la denuncia de impugnación “es una falsedad”.**

ELA y LAB ya habíamos anunciado hacía tiempo que, siguiendo la política de estatalización, los sindicatos CCOO y UGT tenían intención de impugnar el I Acuerdo Marco de Hostelería. Por medio de este acuerdo se ha conseguido dar prioridad a la aplicación de los convenios colectivos de aquí a las plantillas de Hostelería de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, así como proteger las condiciones de trabajo de los recortes que pudieran venir de Madrid.

En el caso de que prospere dicha impugnación ocasionará graves perjuicios a los trabajadores y trabajadoras de la Hostelería de la Comunidad Autónoma Vasca, precarizando aún más sus condiciones de trabajo. Por ejemplo, en determinados casos peligraría el 50% de su salario, 8.200 euros menos al año, y 50 horas más de jornada.

Los sindicatos signatarios del acuerdo, ELA y LAB, ostentamos una representación del 77,48%; CCOO y UGT pretenden apropiarse de una representación que no les han dado los trabajadores y las trabajadoras de Euskal Herria para imponer unas condiciones de otro ámbito.

El objetivo de esos dos sindicatos españoles es claro: monopolizar la representación sindical, sin importarles las condiciones laborales de los trabajadores y las trabajadoras. Al mismo tiempo, la apuesta de estos sindicatos es identitaria, al pretender homogeneizar las condiciones de trabajo de todo el estado, aunque la homogeneización sea a peor, ya que así defienden el marco estatal. Resulta escandaloso que el deterioro de las condiciones de trabajo, en vez de partir de iniciativa empresarial, sea a instancias de estos sindicatos.

El Gobierno Vasco busca alianzas sindicales con CCOO y UGT, porque comparte los mismos objetivos, suplantar la representación sindical dada por los trabajadores y las trabajadoras. Esta alianza resalta hasta donde llega la reivindicación de autogobierno del ejecutivo de Gasteiz, que reconoce representatividad a los sindicatos que le ofrecen paz social, aunque nieguen a los trabajadores y trabajadoras de Euskal Herria su ámbito de decisión.

No hay autogobierno si mediante la negociación colectiva los trabajadores y las trabajadoras de Euskal Herria no pueden negociar sus condiciones de vida. La denuncia de CCOO y UGT muestra que desde Madrid se trabajará en contra de cualquier ámbito que suponga derecho a decidir y, en consecuencia, el Gobierno Vasco, con el Lehendakari a la cabeza, debiera defender los derechos de los trabajadores y las trabajadoras y dar una respuesta firme ante estos ataques.

También queremos interpelar a Confebask y la Asociación de Hostelería, en su condición de signatarios a que denuncien públicamente su impugnación.

ELA y LAB defenderemos en los juzgados la validez del Acuerdo Marco, a la vez que hacemos un llamamiento a los trabajadores/as vascos/as a la movilización para defender sus condiciones de trabajo. No les podemos dejar que nos roben nuestras condiciones.

**DEMOKRAZIA SINDIKALAREN ALDE!  
OSTALARITZAKO LANGILEEN ALDE!**

Euskal Herrian, 2017ko urriaren 4an.

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

**LAB**